

IRRIA aldizkaria eta 4 urte azpiko haurren irakurketaren inguruko ideiak

Une ahaztezinak zure seme-alaben eta ikasleen probetxurako!

Haur txikiekin irakurtzea behar-beharrezkoa da, bai etxean bai ikastetxean, jaiotzatik lau urte bitartean ematen delako haurraren adimen garapenaren %50a, eta, aditu guztiek esaten duten bezala, garapen hau irakurketarekin asko indartzen delako.

Jarri haurra goxo-goxo magalean, sartu berarekin ohean edota bildu ikasleak ipuinen txokoaren inguruan aldizkaria irakurri behar diezun bakoitzean.

Zer dakite haurrek irakurketari buruz?

IRRIA aldizkaria iritsi da!

Txiki-txikitatik izugarrizko ilusioa egiten die hurrei aldizkaria etxeko postontzian edo gelan jasotzeak. Badakite, aldizkaria iristeak, zuekin une goxoak izateko aukera emango diela, beraien pertsonaia maitagarrien istorio berriak entzuteko parada eskainiko diela, eta, aldizkariarekin "jolasteko" aukera ere izango dutela.

IRRIA aldizkaria ezagutzen

Aldizkaria ezagutzeko, haur txikienek hartu eta bota egingo dute, laztandu egingo dute bertako ipuinaz jabetzeko era izango balitz bezala, miazkatu egingo dute, puskatu... Lasai, aldizkaria ezagutzen ari dira!

IRRIA-k "Nik ere badakit irakurtzen!" esatea ahalbidetuko die

Haur asko gai dira txiki-txikitatik irakurtzen arituko balira bezalako jarrera adierazteko: aldizkaria hartu, jarrera egokian jarri, zabaldu, arreta handiz begiratu, hitz batzuk esan, orrialdeak pasa... hizketaldiaren edukia, ezagutzen duten ipuin batena izan daiteke, edo gurasoek aurreko egunean kontatutako Pupu eta Loreren ipuinarena, edo ilustrazioen azalpena, baina helduok imitazio jarrera hau izugarrizko aurrerapausoa bezala ulertu behar dugu. Jarrera hau gure seme-alabengan edota gure ikasleengan lortzea oinarrizkoa da irakurle onak izateko, eta horretarako guk eredu izan behar dugu.

IRRIA-k testuak irudien bidez interpretatzeko aukera emango die

Haurrek, nahiz eta oraindik irakurtzen ez jakin, testu idatziaren inguruko berezko ideiak egiten dituzte ilustrazioei erreparatuz. Guk hipotesi horiek indartzeko galderak egingo dizkiegu: "Zer esaten du hemen Pirritxek?", "Martinber haserre dago, ezta? Zer gertatu zaio?", "Marimo triste dagoela dirudi, zergatik?" ... Ziur esaldi ezberdinak antolatuko dituela irudian agertzen dena adierazteko.

IRRIA-k izen edo hitz ezagunak interpretatzeko aukera emango die

Aldizkariko egitura berberari esker, haurrek hilerro atal berdinak ikusteko aukera izaten dute, pertsonaia berdinak identifikatzeko, eta beraien izenen grafiak eta logoak barneratzeko. Era horretan, hizki batzuk ezagutzen hasten direnean, berehala ikasiko dute PORROTX, ANE, MARIKALANBRE... non jartzen duen eta beren izenekin erlazionatzen: "Anek nire letra bezalakoa du!" (Amaia), "Marikalanbrek nire letra batzuk ditu" (Martin). Testu idatzia interpretatzeko eta idatzitakoari buruzko hipotesiak sortzeko aukera honek, gogoeta egiteko tresna garrantzitsu bat izateaz gain, testu idatziaren irakaskuntzarako estimulu bat izango da zuen haur eta ikasleentzat.

IRRIA dekodifikazioaren bidean lagungarria suertatuko zaie

Irakurtzea, hirugarren batek idatzitakoa asmatzea edo interpretatzea da: irakurri ahal izateko, nahitaezkoa da besteak erabili duen kodea ezagutzea. Idaztea berriz, irakurtzea baino errazagoa egiten zaie haur txikiei, baina irakurtzeak, idatzitakoa kontrolatzeko eta gogoratzeko balio die. Deszifratze prozesuan dauden haurrak, idatzitakoa literalki irakurtzeko saiakera egiten dute, eta, IRRIA aldizkariko atal batzuetan aurkituko dituen esaldi laburren eta ilustrazioen bidez, oso lagungarria suertatuko zaie prozesu honetan.